


Astekaria

BARRÉN

elgoi



Azokarekin agur
urte zaharrari



LARRAÑAGA autoeskola



Santa Ana, 11. Tel: 74 10 11 Elgoibar

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak...	741155
Txanda hartzeko ...	743354
Alkoholiko Anonimoak.....	740385
D.Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria.....	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpekotasun Z..	7410 08
Odol Emaileen elkarteak.....	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua.....	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua.....	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola	742145
Polikiroldegia	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza.....	740296
Zaharren Biltokia.....	740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola	74 27 00
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea	74 13 31

3 ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

"Urte BARREN on"

6 ERREPORTAIA

Gabon Zahar feria

8 ASTE HONETAN

1994ari begira.

16 BERBETAN

Mertxe Sueskun: "Musak landu egin behar dira"

17 ELGOIBARTARRAK GOGORATUZ

Casimiro Zabala, *Zabala II*

18 KIROLA

Elkarrizketa: Roke Etxabe

Lagun Toki Kuadrilen arteko txapelketaren irabazle

20 ELKARTEETATIK BUELTAN

Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak

21 KULTURA

Zirkuko ekilibristak bezala

farmaziak

8, larunbata: Etxeberria

9, igandea: Etxeberria

10, astelehena: Etxeberria

11, asteartea: Etxeberria

12, asteazkena: Etxeberria

13, osteguna: Etxeberria

14, ostirala: Etxeberria

okindegia

9, igandea:
BOUTIQUE DEL PAN



HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegi

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua

KAZETARIA:

Ainhoa Lodoso

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste

KOLABORATZAILEAK:

Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Bertso Eskola, Agur Miren Barandiaran, Hasier Etxeberria, Ina Garagarza, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Koldo Lizarralde, Aitor Lodoso, Nerea Lodoso, German Meabebasterretxea, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta

BANAKETA ARDURADUNAK:

Imanol Larrañaga, Inaxio Garmendia

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.000 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Urte **BARREN** on

Sartu gara 94an. Txanpan ugari edaten da gertakari hau ospatzeko. Makina bat komentario topiko entzuten da bazterretan. Iazkoa baino txarragoa ez dadila izan behintzat, diote batzuek. Hobeagoa izango al da, beste batzuek. Osasuna eta lana eskatzen dute gehienek. Urte berriak itxaropena dakar batzuentzat eta nahigabea besteentzat.

Bitartean balantzea egiten da, pasa den urteak utzi duena aztertzeko. Urte berriarenganako desioak ere azaltzen dira. Urte batetik bestera dena aldatuko balitz bezala. Egun batetik bestera bezalakoa da urtetik urterako jautzia. Horrexegatik ez dut gogoko urtemuga.

Hain gogokoa ez badut ere, **BARREN**ek egin du bere balantzea eta 94rako desioak eta proiektu berriak eman ditu ezagutzera. Iazko urtean prebisorik baikorrenak hautsi ditu **BARREN**ek baina 1993a gogoratuz ezin dugu jarraitu. Ezer ez da bukatu. Aurrera goaz eta egitekoa egindakoa baino astunagoa eta luzeagoa izango da.

BARREN 94, aurrekoaren jarraipena izanik, berrikuntzaz beteta dator. Azken alean ikusi zenuten bezala, diseinua eraberritu egin da eta

zenbait atal aldatu egin dira, batzuk desagertuz eta berri batzuk azalduz.

Atal hau da horren adierazgarri. Lehenengo **LAU HANKATAN** hemendik aurrera **ZENBAT BURU**... izango da. Orain arte hain ondo egin duten lau lankideek beste batzuei utzi diete tokia. Urte osoan zehar hilero-hilero Diana, Alberto, Joxin eta Hasier izan ditugu euren iritziak ematen. Lan astuna benetan astero Elgoibarko irakurlekoa erakartzea, baina laukote honek bikain lortu du helburu hau. Urtebeteko konpromezua hartu zuten eta orain beste batzuek beteko dute utzitako tokia. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiet lauei eskaini dizkiguten iritziengatik. Hemendik aurrera lankide gehiago izango ditugu atal honetan euren iritziak ematen.

Atal berriak eta eraberrituak, denak zuen gustukoak izango direlakoan gaude. Aurten ere zuen gogokoa izatea espero du **BARREN**ek eta zuen parte hartzea eskatzen dizue. Zuen eskutitz, kexa, txalo, iragarki, argazki eta beste edozein kolaborazio eskuzabal hartuko ditugu. Ea bada 94aren bukaeran orain bezain gustura aurkitzen garen. Urte **BARREN** on denoi.

Alberto Agirreazaldegi
ZUZENDARIA

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



Noizko Elgoibarko historia idatzia?

Pasa den astean, irakurri nuen egunkari batean Estatu espainola zela 3na munduan, non hobetuen bizi den jendea. Aurretik zeuden Alemania eta Suiza. kulturalki, aldiz, 17. lekua okupatzen zuen ranking horretan. Estatistika guztien antzera hau oso erlatibo da, segun eta nola begiratzen den.

Dena dela, neri bururatzen zait ez dagoela hain oker datu hau. Adibidez, zenbatek ezagutzen dituzte arkitektura eta eskulturari buruzko datuak eta aztertzeko behar diren elementuak? Seguraski, gutxik. Jeneralian, ez dizkigute erakutsi gutxienezko gauzak, maila kultural normal bat izateko.

Arlo honetan eta interesatzen zaidan gaia zehaztuz, nik dakidanez, ez dago oraindik gure herrian, bere historia jasotzen duen

nolabaiteko lan bat? Aspaldi entzun nuen, bazeudela saiakera batzuk. Baina harrez gero ez det ezer gehiago jakin.

Pasa den abenduan zehar, inguruko zenbait herrik, Soraluze eta Mendaro zehazki esateko, liburu sendoak argitaratu dituzte, non interesatuek irakurri dezaketen bere auzoko historia, aintzin arotik gaur arte. Liburu biak dira lan serioak eta oso interesgarriak, baita elgoibartarrentzat ere, zenbait gauza amankomun baititugu.

Nire galdera beraz, erantzun diezadakenarentzat, hauxe da: "Noizko Elgoibarko historia idatzia? Askotan oraingo gertaerak ulertzeko eta gerokoak susmatzeko, lehenengo historia ezagutzea beharrezkoa deritzot. Gainera, ez al dira herriko eta hiritarren historia jasotzen dituzten liburuak edukitzea, bizimodu kalitatearen adierazgarri?

M.A.

Gabonetako Kirol lehiaketa?

Lehendabizi eta ezertan hasi aurretik, gutun honek ez du inoren aurka jaurtikitako harri bat izan nahi, ezta gutxiago ere. Bai, ordeztu, datorren urterako kontutan izan daitezkeen zenbait ideiarekin adierazle.

Hasteko eta momentuan ikusitako aurreneko gauza izan zenez, "Gabonetako kuadrilen..." izanik, zergatik pilatu kirol ekintza guztiak lau egunetan Gabon egunak bi astetan luzatzen direnean? kontutan izan behar baita zenbaitek egunean hiru partidu jokatu behar izan zituztela, eta ez nolana hiko orduetan gainera. Baina hau ez da gehien harritu ninduen. Inork ikusi al zuen Kiroldegian lau egun horietan zehar edozein ezbeharri eurre egiteko mediku zerbitzurik? Eskerrak beti dagoen

autoa duen norbait txorkatila okertu duen gaztea anbulategira eramateko prest.

Seguruenez, aipatutako bi gauza horietaz gain, hobetu daitezkeen beste gauza asko izango dira, baina hori ez da nire eginbeharra.

Azkenik eta dena esan behar delako, zorion erdi bat bakarrik antolatzaileei. Izan ere, Elgoibarren ez da batere erraza hainbeste jende biltzea zerbaiten inguruan.

Partehartzaile bat



GALDERAK

Noizko Elgoibarren pila kontenedore bat?



KEXAK



TXALOAK

Untzon tabernan adierazi diguzuen adiskidetasuna eta laguntza eskertuz Urte Berri On eta oparo bat opa dizuegu.





Aurtengo lehenengo erretratu zaharra **Felipe Gabilondok** lagatarkoa da. Feliperen esanetan, Elgoibarren antolatu zen lehen-dabiziko kabalgatako erretratua da. Antolatzaileak "Frente de Juventudes"ekoak izan omen ziren. Urtea galdetu diogunean 1947.

urtearen bueltan ateratakoa izan daitekeela esan digu.

Bitxikeria bezala, erregeen zaldiak Guardia Civil-ak lagatarkoak zirela azaldu digu. Zeintzuk diren hiru erregeak?

Melchor (**Dimas Gil**), Gaspar (**Felipe Gabilondo**) eta Baltasar (**Inazio Oñederra**).



Afari merkeak

- * Kazuelatxoak
- * Oilasko erreak (aurrez eskatu)

Hemendik aurrera
EGUNEROKO MENUAK
650 pta.

Aurrez enkargatu ezkeru, hobe!



EGAÑA
kotxe
konponketak

P. Muguruza 18. ☎ 74 01 98

Urkiola

TABERNA

Zorionak eta
Urte Berri On!

Gabon Zahar Feria

Abenduaren 31ko goizeko 8,30etatik aurrera Euskal Herriko barazki, fruitu, lora, hegazti eta abarrez jantzi ziren herriko kaleak. Urtero bezala, aparteko giroa sortu zen ehundik gora izan ziren saltokien inguruan. Eguraldia lagun, talo, txakolin eta trikitixaren soinu alaiez burutu zen 1993.eko Gabon Zahar feria.

Aurten inoiz baino handiagoa izan da Gabon Zahar feria. Urtez urte zabaltzen doala eta, herriko kaleetan zehar banatu dituzte aurten erakustoki ezberdinak. Plaza handian barazkiak, lorak, gaztak eta zenbait taberna, Giza Eskubideen enparantzan tabernak, Plaza txikian eta Nafarroa enparantzan hegaztiak eta nekazal tresnak eta Pedro Migel Urruzuno kalean nekazal tresnak ere bai. Modu honetan feria Plaza handitik deskongestionatu nahi izan du Udalak. Guztira ehundik gora izan dira saltokiak eta ikusgarrienera itarikoak, hegaztien atala izan da. Nafarroa plazako hegaztien lumajeak ikusmin handia sortu zuen ikusleengan.

Antolatutako sariketa ezberdinetako partaidetza nahiko zabala izan zen. Hegaztien atalean 50 apar-



■ ■ Aurten lehen aldiz, produktuen jatorria egiaztatuta da.

tadu ezberdin sailkatu ziren, barazki eta fruituen atalean 28 saltoki ezberdinek lehen postuagatik lehiatu zuten eta Goiko Errota elkarteak antolatutako XII. gazta sariketan 44 parte hartzaile izan ziren.

XII. gazta sariketako parteharzarzaileen artean berdintasun handia egon da.

Gaztagile elgoibartarrak Mausitxa eta Lizundia - Txabola baserrikoak izan ziren.

Aurten, berrikuntza garrantzitsu baten bultzatzaile izan da gure feria.

Orain arte, epaimahaiak produktuen aurkezpena soilik hartu izan du aintzartat. Aurten lehen aldiz, epaimahaikideek produktuen jatorria eta prozesua egiaztatu dute, hau da, produktua baserri bertakoa dela ziurtatu dute. Gainera, hemendik aurrera hau horrela izango da.

Gazta sariketa

Elgoibarko Goiko Errota elkarteak antolatutako XII. ardi gazta sariketako finalisten artean berdintasun handia egon arren, azkenean Munain

herriko Carmen Perez de Albenizentzat izan zen garaipena. Haseran, bigarren eta hirugarren sailkatuek puntuazio berbera jaso zuten eta bigarren dastaketa egin eta gero Guillermo Zugazuak lortu zuen bigarren postua. Hirugarren postua Idiazabaleko Domingo Goibururentzat izan zen. Udaletxean bildutako jendeak itxura oneneko gaztaia aukeratu zuen. Oñatiko Rufino Agirrek egindako gazta ilun bat izan zen aukeratu zutena.

Sariketaren antolatzaileek, Goiko Errota elkarte-koek, Zumarragako Etxeberri jatetxeko Jose Manuel Zubizarreta, Juan Jose Lapitz idazlea eta Luis Mokoroa Euskal gastrono-



■ ■ Goiko Errota elkarteak antolatutako XII. Gazta lehiaketako irabazleak alkatearekin.

Zenbait epailek Ordiziakoaren gainetik jartzen dute herriko gazten kalitatea.

mia kofradiako presidentea omendu zituen. Goiko Errotakoek azken 7 urteetan epaimahaikide gisa gizon hauek egindako lana saritu nahi izan zuten.

Epaimahaia honoko hauek osatu zuten: F. Leizaola Aranzadi elkartekoa,

G. Macho idazlea, J. Artolazabal jatetxeko ugazaba, P. Perez Elortondo Idiazabal Gaztaiaren kontseilu erregulatzailerako kidea, J.C. Sordo Arroyo laborategikoa, J.M. Zubizarreta jatetxeko ugazaba, J. Lapitz idazlea, J.M. Garmendia Euskal Kofradiakoa, Xabier Osa jatetxeko ugazaba, R. Zenarruzabeitia gastronomi kritikoa eta J.A. Merino Idiazabal Gaztaiaren kontseilu erregulatzailerako kidea.

Azken urteotan lehia-kideen arteko aldea gero eta txikiagoa da. Zenbait

epaimahaikideren iritziz, Elgoibarren aurkeztutako gazten kalitatea Ordiziako lehiaketan aurkeztutakoena baino hobea izan da. Idiazabal gaztaren kontseilu erregulatzailerako kide batek esan zuenez, datorren urtean gaztagileen arteko urte osoko lehiaketa egingo da eta Euskal herriko feria batzutan parte hartzeagatik puntu batzuk lortuko dituzte. Elgoibarko feria "A" mailakoa izango da. Horrek esan nahi du Elgoibarren parte hartzeagatik gorengo puntuazioa lortuko dutela gaztagileek.

SAILKAPENA

□ BARAZKIAK

- 1- Mendibil (Anoeta)
- 2- Bolungarai (Berriz)
- 3- Txillarre (Elgoibar)

□ FRUITUAK

- 1- Sagarmiña (Mutriku)
- 2- Ekogor (Donostia)
- 3- Belamendi (Errezil)

□ LORAK

- 1- -
- 2- -
- 3- Antonena (Oñati)

□ SALTOKIRIK ONENA

- 1- Sagarmiña (Mutriku)
- 2- Txillarre (Elgoibar)

□ HERRIKO ONENA

- Zabaleta (Elgoibar)

□ SARI BEREZIA ERREZIL SAQARRARI

- Ureta (Azpeiti)

□ ONDDEN ZAINDUTAKO BASOA

- Prudencio Izagirre (Uba Txiki)

□ HEÇAZTIAK

- 1- Martin Olarra (Tolosa)
- 2- Fernando Azkoaga (Eibar)

□ EUSKO OILOA

- Xabier Goikoetxea (Albistur)

□ OILASKOA

- Xabier Goikoetxea (Albistur)

□ KAPOIA

- Mari Carmen Uranga (Hernani)

1994ari begira

Kaixo elgoibartarrak!

Orain dela ia bi mila urte

Belenera eraman gintuen izarrak ekarri gaitu Elgoibarrera eta urtero bezala urtarilaren bosteko arratsaldean, zuekin izan ginen. Badakigu gauza asko eskatu zenizkigutela eta saiatu ginen banaketa on bat egiten, baina zuek haurrak ez pentsa den dena ekarri behar dugunik, haur asko zarete eta...

Baina bai nahi izan dugu elgoibartar guztientzat, osasuna, lana eta pakea ekartzea, zein zaila den hau! Bai, guretzat ere bai,

nahiz eta magoak izan! Behintzat zuen bihotzetan aldaketa bat egitea nahiko genuke, aldaketa simple simplea eta aldaketa honek elkartasuna indartzeko izan beharko luke, zuen arteko elkartasuna handitzeko, hitz baten esanda, bihotz zabalak izateko. Beno, besterik gabe, agurtu egin behar gara eta ez ahaztu, datorren urteko urtarilaren bostean zapata garbi garbia ipini eta utzi bestea gure kontu!

Besarkada handi bat

Meltxor, Gaspar eta Baltasar



BATZOKIA
Jatetxea-Taberna

P. Muguruza 8. Tel: 74 08 21

magu's

ILEAPAINDEGIA

EDERGINTZA

San Roke 6 behea tel. 74 34 91

CHINA TOWN

Txinatar jatetxea

- ▶ 2, 3, 4, 5, 6, 8, personentzako menuak
- ▶ Ezkontzak, Despedidak...
- ▶ Elxera eramateko janaria

Eguneko Menua:
800 pta

Ifar-Kale, 3. 70 21 55
EIBAR

Logopedia
Zentroa



Isabel Gil Arrocha

- Hizkuntz arazoak
- Hizketa arazoak
- Ahots arazoak
- Irakurtzeko eta idazteko arazoak

Bidebarrieta, 27-B
Tel. 11 84 71 EIBAR

EIBAR

OSASUNDEGIA

- | | |
|---------------------------|--------------------------|
| 1- Alergologia | 9- Ortodontzia |
| 2- Kardiologia | 10- Otorrinolaringologia |
| 3- Zirugia | 11- Pediatria |
| 4- Zirugia maxilo faziala | 12- Sikiatria |
| 5- Dermatologia | 13- Radiologia |
| 6- Ginekologia | 14- Traumatologia |
| 7- Laborategia | 15- Urologia |
| 8- Barne medizina | |

Urkizu Pasealekua, 11.

(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).

Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04

Zer eskatu diozu 1994 urteari?



Elena Alberdi
50 urte, etxeoandrea

Eskatzen dioten lehen gauza osasuna da. Bigarre-na lana, eta denok gure partetik piska bat ipinitxia ia Euskal Herrixan problema konpontzen dogun.



Andres Ondarza
45 urte mekanikoa

Gure arazoak konpontzea, oso txarto dago eta. Lanaren arazoa batez ere, hori edukita dena konpontzen baita. Zoriontasuna ere eskatuko nuke.



Olatz Oñederra
19 urte, ikaslea

Urte ona izatia. Lanaren arazoa ea konpontzen den eta neri gustatuko jatan estudixuak ondo jutia. Baina batez ere gaztientzako irtenbidia egotia.



Alex Sasiain
26 urte, irakaslea

Ez dakit, hotzean harra-patu nauzue. Bueno, ea 1994ean lan gehiago dagoen guztiontzat eta bakea ere bai. Zorte ona orokorrean.



Laura Dakinta
17 urte, ikaslea

Lan gehiago egotea eta behingoz krisia bukatzea. Aurten UBI egiten ari naiz eta ondo bukatzea eta Unibertsitatera joatea gustatuko litzaidake.



Ladislao Elorza
73 urte, jubilatua

Erreponsabilidadia. Bakoitza bere buruaren jabe izatia. Gizona barrutik aberastia hari eta honi begiratu gabe. Hortik aurrera erraza da.

**ASESORIA
GOZAR**

AHOLKULARITZA

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

ORAIKO
SAN FRANZISKO 25
E LGOIBAR

■ Gregorio Monreal-en erakusketa

Gregorio Monreal elgoibartarraren argazkien erakusketa zabalik egongo da datorren astelehena arte, hilak 10. Argazkilari elgoibartarrak gai anitz lantzen ditu: Marruekos, erretratuak, gai sozialak, diptikoak, konposizioa eta kolorea eta Elgoibar. Argazki guztiak salgai egongo dira erosi nahi dituenarentzat. Erakusketaren ordutegia arratsaldeko 7etatik 9ak arte izango da astegunetan eta eguerdiko 12etatik 2etara jaiegunetan.

■ Alzheimer gaitza

Alzheimer gaitzak jota daudenek Donostiako AFAGi elkartera jo dezakete beharra izanez gero. Elkartek, diru-laguntzei buruzko informazioa, informazio tekniko eta legala, bere buruaz baliatzeko ikastaroak eta gaitzak jota daudenen familiartekoentzako laguntza eskaintzen du. Informazio gehiago eskuratzeko AFAGIrekin harremanetan jarri 42 81 84 telefonora deituz.

■ Kitarra kontzertua

San Anton jaien egitarauaren barruan Elgoibarko Udalak eta Musika eta Dantza Fundazioak kitarra kontzertua antolatu dute datorren ostiralerako, hilak 14, Udaletxeko Biltzar aretoan. Kitarra joleak Bienvenido Rodriguez eta Juan Carlos Martin izango dira eta guztira zortzi pieza joko dituzte. Kontzertua arratsaldeko 8etan izango da.

Lanbide Heziketako sei ikasle ohik praktikak egingo dituzte Inglaterran



Lanbide Heziketarako Institutuko sei ikasle ohi Manchester-era praktikak egitera joango dira hiru hilabetez datorren urtarrilaren 14ean. Manchester-eko enpresa ezberdinetan lanean arituko diren elgoibartarrak, Esther Lizarriturri, Ainhoa Idarraga, Conchi Sueiro, Nekane Ortuoste, Lorea Urain eta Susana Mancisidor dira. Sei emakume hauek ingelesez, administraritzan arloan lan egin beharko dute.

Lanbide Heziketa Institutuak europar elkarteko PETRA proiektutik diru-laguntza eskuratu zuen atzerriko enpresetan praktikak egiteko. Horrela, Manchester-eko City College eskolaren bidez, ikasleak bost enpresetan egotea lortu zuten. Ikasle bat,

bost izarreko hotel batean egongo da, bik Manchester-en izango den nazioarteko Forum Global deritzonaren antolakuntzan lan egingo dute, batek City Collegean, beste batek eraikuntza arloko enpresa batean eta beste batek, bertako Metropolitan University-n. Sei ikasleak, bertoko familietan bizi izango dira praktikek irauten duten bitartean.

Lanbide Heziketa Institutuko arduradunek, atzerriko eskolekin harremanak sendotu eta horrelako elkartrukaketak egiten jarraitzeko asmoa azaldu dute. Urte bukaerarako, Alemaniako Ludwig Herard Schule eskolarekin 10 eguneko ikasle trukaketa egiteko asmoa dute.


ASEGURUAK
San Bartolome 15
Tel. 74 3037

TIRO RIRO

San Frantzisko, 54. 74 13 86


Ezkontzak
Bataioak
Bazkariak
Despedidak
Tel: 12 12 62 ARRATE-EIBAR



Bertsolaritza modan ote? Ez dakigu horrela den ala ez baina bertsolaritzaren inguruan zerbait ari da mugitzen. Abenduaren bukaera aldera, German Meabebasterretxea zuzenbideko ikasle eta bertsolari elgoibartarrak, Andoni Egaña Euskadiko bertsolarien txapeldunak eta Santi Goñi EHUKo zuzenbide fakultateko zibil arloko irakasleak eta jabetza intelektualean adituak jabetza intelektuala eta bertsolaritzaren inguruan jardun zuten. Hitzaldiaren ideia Germanek jabetza intelektualari buruz egindako lan batetik sortu zen. Jabetza intelektualari buruzko legea eta bertsolaritza uztartu beharra azpimarratu zuten hitzaldian.

Inoiz baino jende gehiago bildu zuen Elgoibarko Izarra kultur elkarteak urtero antolatzen duen Gabonetako bertso jaialdiak. Bertsotan izan genituen abenduaren 30ean Kiroldegian Andoni Egaña Euskadiko bertsolarien txapelduna, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, German Meabebasterretxea, Iñaki Murua eta Angel Mari Peñagarikano. Saioa arrakastatsua izan zen benetan eta datorren urtean maila bera ematea espero dute antolatzaileek.



■ Edadetuei omenaldia

San Lazaro egoitzako edadetuek omenaldi astea ospatu berri dute. Hori dela eta ekintzaz beteriko astea izan dute. Astelehenetik ostiralera bitartean, pelikulak ikusi, dantzan egin, kontzertuak entzun eta beste horrenbeste ekintza burutu dituzte. Omenaldi astea, larunbatean, hilak 15, amaituko da zine emanaldi batekin. Aste osoan zehar, misioetarako dirua jasotzeko tonbola eduki dute.

■ Jaiotzen txapelketa

Aurten 34 jaiotza ezberdin aurkeztu dira Kristau Ikasbideak antolatutako VII. jaiotzen lehiaketara. Lehen saria Ganix eta Hodei Ostolazak irabazi zuten, bigarrena Nahia Alguacil eta Beñat eta Gotzon Gutierrezek eta hirugarrena Javier eta Sheila Novoa eta Luis Ricardo eta Gabriel Alves anaiarrabek. Sari berezia, Alex Viñarasentzat izan zen, mugimendua duen jaiotza egiteagatik.

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal

URKIDI
AHOLKULARITZA
ASEGUROAK

Kalamua 12
ELGOIBAR
Tel-Fax:
74 18 91

PUB
LAJANET
elgoibar

■ Odol ateraldiak

Ostiralean, hilak 14, Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteko talde bat herrian izango da ohizko odol ateraldiak egiteko. Eginkizun horretarako eta odol emaile egiteko ere, P. M. Urruzuno 8an duten lokaletik pasa daiteke. Harrera iluntzeko 8ak arte izango da. Elgoibarko Odol Emaileen elkarteak herritar guztien artean zabaldu nahi du deia, guztion laguntza beharrezkoa izanik. Elkarteak odol emaile izateaz aparte, elkarteko bazkide babesle ere izan daitekeela adierazi ahi du.

■ Filatelia elkartearen erakusketa

Elgoibarko Filatelia eta Numismatika elkarteak urteroko seilu erakusketa antolatutako du datorren 15etik aurrera. Aurtengoa XIV. erakusketa da eta Filatelia elkarteak Pedro Migel Urruzuno idazle eta apaiz elgoibartarraren irudia duen mataseilu berezia erabiltzeko baimena lortu du. Kultur Etxea, beraz, postetxe bihurtruko da hilaren 15etik 17ra bitartean. Inaugurazioa hilaren 15ean izango da eguerdiko 12etan. Ondoren bazkaria izango dute Baltasar elkartearen Filatelia Federazioko arduradunek eta Filatelia elkartekoek. Halaber, Federazioak ohizko bilera egingo du Kultur Etxean filateliarekin zerikusia duten gaiak aztertzeko. Erakusketan Caceres, La Coruña, Donostia, Bilbo eta Estatuko beste toki askotako bilduma pribatuak egongo dira ikusgai.



Umorerik eta barre egiteko gogorik ez da falta izan Gabonetan. Elgoibarko haurrek goiz alaia igarotzeko aukera izan zuten Takolo, Pirrux eta Porrotx pailazoekin. Ikus daitekeenez, haurrek ez zuten detailerik galtzerik izan nahi pailazoen ekinaldian. Pailazoek "Beti martxan" azken diska kantatu zuten.



Jose Gonzalez da argazkian duguna, Extremadurako Cabeza del Buey herrian ehizatutako basurde ederrarekin. Animaliak 160 kilo inguruko pisua zeukan eta luzeraz 160 zm eta altueraz 90 zm ditu. Josek berak diseinatu ondoren, erabilera bitxia eman diote animalariari. Egurrezko plataforma eta erroberak jarri eta gero, Joseren ilobek jostailu paregabea topatu dute.



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



Fotero

**OKINDEGIÀ
OPILDEGIÀ**

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Plazara dantzara

izeneko ikuskizuneko une bat da honoko hau. Kiroldegian izan genituen pasa den Gabon Zahar feria egunean, hilak 31, Eibarko Kezka Dantzari taldeko dantzariak, Debako Gure Kaikoak, Inazio Bereziartua Musikeskolako dantza eskolakoak, Haritz Dantzari taldekoak eta Udal Txistulari taldea. Ikuskizun bera, Eibarren eta gure herrian burutu eta gero, larunbatean, hilak 8, Debako Soro ferian dantzatuko dute.



Bizikleta eskuan dutela dauzkagu argazkian Lagun Taldea txirrindulari elkarteak egindako zozketako lehen eta bigarren sarien irabazleak. Gabonetan zehar Lagun Taldekoek San Bartolome kaleko lokalean ikusgai eduki duten bi sarien zozketan Teodoro Conderi, lehen saria tokatu zaio, eta, Angel Etxaberi, bigarrena. Orain, irabazitakoaz gozatzeko ordua da.

Garaikurra

eskuan, hemen ditugu San Migeleko Murkaikupe frontoian jokatu den lehen esku pilota txapelketako bi bikote finalistak. Finala abenduaren 26an jokatu zen eta irabazle Beraza eta Ramirez bikotea geratu zen. Bigarren postua Joxin eta Gabilondok osatutako bikotearentzat izan zen.



BARREN Sariak 1993



Arrakasta handiz burutu zen BARREN sarien lehen edizioa. Mahai buruan Ales Arrieta Elgoibarko Izarrako presidentea, Alberto Agirreazaldegia BARRENEko zuzendaria, Mari Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia eta Juan Mari Eguren Udaleko alkate ordea izan genituen. Aurkezpen lanak egiten Olga Unzila kazetaria izan zen.



▲ Kokoeko arduradun den Alberto Garciak atal arrakastatsuenari emandako saria jaso zuen prentsa lokalean aditua eta Arrasate Press-eko sortzaile den Joxe Aranzabalen eskutik.



▲ Elkarteen atalean, *Morkaikori* egokitu zitzaion sarietako bat. Anton Arizmendik BARRENEko Erredakzio Kontseiluko kide den Anton Bergararen eskutik jaso zuen saria.

▼ *Ego-Toki* elkartetik, bertako presidente ordea den Ciriaco Aizpirik jaso zuen saria. Saria ematen, berriz, Rosa Iriondo izan zen, BARRENEko Erredakzio kontseiluko kidea.



▲ Publizitate fidelena eta bere irudia egokien egin duena *Eibar Motor* etxea izan da. Migel Gurrutxagak gure publizista den Nekane Etxanizen eskutik jaso zuen saria.



▲ Josefina Irustak erretratu zahar berezienari emandako saria irabazi zuen. Honi BARREneko Erredakzio kontseiluko kide den Iñaki Arrietak eman zion saria.

▼ *Arrazoiak Erdibana* ataleko arrazoi egokiena Javier Garrok idatzitakoa izan zen. Itziar Agirregomezkortak, BARREneko zuzendari ohiak, eman zion saria.




▲ Elgoibarko Kirol Elkarteko Manolo Esnaola *Elkarteetatik Bueltan* ataleko saria jasotzen izan zen. Saria ematen BARREneko Erredakzio kontseiluko kide den Jose Inazio Sarasua.



▲ *Artegi* dendako Andoni Larreategiri publizitatea modu orijinalenean eta zuzenenean egiteagatik eman zitzaion saria.

▼ Aurtengo erakunde laguntzaileari saria Udalari egokitu zitzaion. Juan Mari Eguren alkate ordeari Elgoibarko Izarrako presidentek, Ales Arrietak eman zion saria.



▲ Azkenik, Mari Karmen Garmendiak, Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusiak, kanpoko pertsonaiari emandako saria jaso zuen BARREneko Erredakzio Kontseiluko Edurne Bilbaoren eskutik.

Mertxe Sueskun:

"Musak landu egin behar dira"

Mertxe, eskultura egiten orain dela hamabi urte hasi zen Egur tailerrean. Horietatik hiru, Debako eskolan pasatu zituen eta beste sei hiltegian kokatua dagoen arte tailerrean. Momentu honetan etxeko

bakardadean aritzan da lanean. Berak aitortu digunez, musak landu egin behar dira, ez datoz berehala eta Picassoren esaldia bere eginez "Musak baldin badatoz lanean harrapa nazatela" esan digu.

- Zer erreferentzia erabilzen dituzu?

- Gehienetan naturatik hartzen ditut, nere barnean nolabaiteko zirrara sortzen didaten elementuak. Adibidez, Nafarroara, jaioterrira, bueltatzen naizenean asko eragiten naute bertako nekazal arkitekturaren elementuek. Ideia horrek hartu eta gero nere erara moldatzen ditut, eta musak bisitatzeko banaute, orduan are hobeto.

- Ze materiale erabilzen dituzu zure lanean?

- Burdina, sisan eta kotoiak. Orain momentuan kutxak, katiluak, ontziak hartu ditut eta nolabait bete egin ditut. Plastikoak eta horrelakoak ez zaizkit batere gustatzen, identifikatua sentitu behar naiz materialekin.

- Zenbat ordu pasatzen dituzu lanean?

- Ahal dudan guztia, batez ere azken bost urteotan eskulturari serio heldu diodanetik. Orain goizez euskalte-



"Instituzioek gehiago lagundu beharko lukete"

gira joaten naizenez, arratsaldean bakarrik jarduten naiz laupabost orduz.

- Nola ikusten duzu eskultura Elgoibarren eta Euskal Herrian orokorki?

- Euskal Herrian demaseko aberastasuna dago zentzu honetan eta Elgoibarri dagokionez,

talde kultural asko daude merezi duten harreta jasotzen ez dutenak. Elgoibarko herrian gauza oso interesgarriak aterako lirateke instituzioek gehiago lagunduko balute. Mundu hau oso gogorra da, denbora eta diru asko eskeintzen diozu lan bati, eta gero konpe-

tentzia izugarria da.

- Esaiguzu zerbait erakusketen munduari buruz.

- Erakusketek norbera ezagutarazteko balio dute. Salmentak, aldiz, oso murrizak izaten dira. Kontuan izan behar da eskulturak jartzeko espazioa behar dela. Maila ekonomiko altua duten pertsonak izaten dira normalki espazio handien jabe, eta hauek dekoratzaileen esku uzten dute espazioak betetzea. Azken urteotan dekoratzaileak badirudi hasi direla eskulturen inportantzia jabetzen. Hala ere, esan beharra dago hemen ez dagoela kultura handirik eskultura munduaz eta artistak gaizki bizitzera kondenuatuak daude.

- Zer proiektu dauzkazu aurrera begira?

- Momentu honetan lehen aipatu dudan ontziekin ari naiz lanean. Seguraski eskultura horiek aurkeztuko ditut Granada eta Malagan.

Myriam Aldazabal

BATA ala BESTEA

Andoni Egaña Bertsolaria

- **Andoni ala Antonio?** ▶ Andoni.
- **Aita ala senarra?** ▶ Konpatibleak dira, ez?.
- **Bertsolaria ala poeta?**
▶ Bertsolaria. Bertsolari ona hobe da poeta txarra baino.
- **Gaua ala eguna?** ▶ Gaua.
- **Txapela ala bisera?** ▶ Zarauzko malekoian ibiltzeko, bisera.
- **Ducados-a ala Winston-a?** ▶ Ducados-a. Winston-ak erre gustua eztarrian eta kokoterainoko klaboak uzten du.
- **Zortziko handia ala txikia?** ▶ Hamarreko handia.
- **Potoa ala hanka luzea?** ▶ Potoa.
- **"Balinda" ala ezinda?** ▶ Berdin da.
- **Begiekin ala ahoarekin?** ▶ Begiekin, noski.
- **Elisa ala eliza?** ▶ Dudarik gabe Elisa, baina elizatik ezkondu ninduan hain zuzen ateo konbentzitua naizelako eta teatro egiteari inolako beldurrik ez diodalako.
- **Zenbat ordu egiten dituzu lo?** ▶ Nahikoa izaten diat 6 ordukin funtzionatzeko baina normalean gutxiago egiten dizkiat, bost edo bost eta erdi.
- **Zer da funtzionatzea?** ▶ Kanpora irten eta edozeinekin edozertan homologable izatea.
- **Neskek zuri begiratzea, ala zuk neskei begiratzea?** ▶ Dudarik gabe, nik neskei begiratzea.
- **Zer da zuretzat Hordago?** ▶ Erabaki inportantien aurrian balientea izatea. Nahiz eta gero, autopistan, bi segundu gehiago ez pasatzeagatik ez atrebitu moneda bila ibiltzea eta beti biletiakin pagatu. Izugarri izorratzen nau harategian kolatu eta gero erabaki inportante baten aurrean koldarra denak.
- **Belodromoa hamar mila lagunekin, ala sehaskan semea?**
▶ Sehaskan semea jode! Askosaz politagoa dek. Belodromoan hamar milaren aurrean maila emateko sehaskan seme bat euki behar duk, patxara emango dikena, gero horren aurrean erantzuten jakiteko.
- **Saioa al da egin doken saiorik onena?** ▶ Dudarik gabe. Berak neure akats berak zeuzkak. Kojonuda.



Casimiro Zabala (Zabala II)



- 1923 urtearen bueltan hasi zen Casimiroren izarra pizten. Bere anaia Manuelek hasi jokatzen. 18 urte baino ez zituen orduan.
- Haseran bikoteka baino ez zuen jokatzen Merino, Ansola, Ulazia, Artamendi, Txapasta eta beste pilotari batzuren aurka.
- 1925. urtean ezkondu zen Ondarrun.
- Urte berean, Madrid-eko *Moderno* frontoian garaiko 10 pilotari onenak kontratatu zituzten, tartean Zabala.
- Aparteko aurrelaria izan zen, beti ondo kokatuta egoten zekien eta lurretik distantzia gutxira botatzen zuten pilota ezker zein eskubi aldera.
- 1929ean, *Astelena* frontoian, Mondragones-ekin batera, 12 tantu egin zizkien Atano anaiei.
- 1940ean laga zuen pilota, 423 partidu jokatu zituelarik.
- 1992. urtean hil zen 88 urtekin.

Goiara
San Bartolome, 23

**LURRINDEGI ETA GARBIKETA
AUTOZERBITZUA**

AZPELETA elektrizitatea

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ARGIZTAPENAK
- AUTOMATISMOAK

Urte Berri On!

San Frantzisko 51, behea. Tel: 74 12 38

MOTZAK

Mugerza krosa hilaren 16an izango da

Aurten 51. aldiz antolatuko du Ego-Toki atletismo elkarteak Mugerza Memoriala. Datorren astelehenean, hilak 10, iluntzeko 7etan, aurkezpen ofiziala egingo dute Kultur Etxean. Ekitaldian Ego-Tokiko arduradunak, Jaurlaritzako eta Aldundiko kirol arduradunak, Elgoibarko Udaleko agintariak, kazetariak eta lasterketako sponsorrak izango dira. Iaz bezala, aurten ere Mintxetan izango da lasterketa eta munduko korrikalari onenak bertan ikusi ahal izango ditugu. Idoloak eta izarrak ikusteko parada izateaz gain, herriko korrikalariak ere ikusiko ditugu norgehiagoka gogorrean.

AGENDA

Futbola Mintxetan

Larunbata 8

9,15: Eibartarrak - Segura

(Jubenilak)

11,00: Elgoibar - Anaitasuna

(Kadeteak)

12,45: S. D. Eibar - Hernani

(Kadeteak)

15,30: Elgoibar - Lazkao (Jubenilak)

18,30: Urki - Aloñamendi (Jubenilak)

Igandea 9

10,00: Urko - Romo (Jubenilak)

12,00: Elgoibar - Urretxu (Neskak)

16,30: Haundi - Mondragon



Roke Etxabe:

"28 urte egin ditut profesional bezala"

■ **Roke, kontaiguzu nolakoak izan ziren zure haserako pilotari garaia.** - Mutil koskor gehienak bezela, haseran eskuz egiten nuen. Nik baditut bi lehengusu Etxeberrin eta handikan etorri zan lelengo saskia. Gu baserrian bizi ginan, autopista ganian, eta han, sagarrak jaurtitzen nitxun demaseko abantailakin. Alzolako frontoian apaizak jokatzia prohibidu zigunian hemengo frontoian hasi nintzan goizeko 6etatik 7etara saskiakin jokatzin.

■ **Nola heldu zinen profesional izatera?** - Gure ametsa Ameriketara, Cuban eta Bartzelonara triunfatu zian. Lelengo Bartzelonara jun nintzan, 56an. Gero Mallorcara eta laster Manilara jun ginan eta 20 bat hilabete egin eta gero, gure ametsa zan Miami frontoira joateko aukera euki nun. Han 4 hilabete denboraldiak egin nitxun zazpi bat urtez. Udan Euskal Herrian jokatzen gendun, Markinan, Durangon, Miarritzen, gero Gernikan... Gero huelgak eta arazuak etorri zian eta hemen geratu bihar. Gero New York ondoan, Bridgeport-en; frontoia zabaldu zutenian hara jun ginan.

■ **Zer nolakoak izan zen hango esperientzia?** - 37 urterekin jun eta 45ekin erretirau

55 urte. Iparramerika izugarri gustatzen zaio eta falta sentitzen du. Dena den, hemen gustura bizi da. Ez dauka pilotari faboritorik eta pilota modalitate guztiak gustatzen zaizkion arren, gogokoen, jakina, saskia du.



nintzan. Frontoi hau berrixa zan, saskia betidanik Floridan jokatu izan da. Eliminatoria antzeko modalitatian jokatzen gendun. Eta jendiak diru asko jokatzen zaban, egun batian milioi dolar pasa. 6 hilabete jokatzen zian eta udan beti bezela, Euskal Herrian. Horrela bukatu zan nere abenturia.

■ **Zenbat partidu jokatu dituzu profesional bezala?** - 28 urte egin ditut profesional bezela eta zenbat partidu jokatu ditxudan ere ez dakit. Asko dira.

■ **Gaur egun, pilotarekin kontaktuan jarraitzen duzu, ezta?** - Bai, semia jokatzen dabil. Orain ni egon nintzan Brigdeport-eko frontoian dago. Nahikua arazo daukate eta lengo sasoiekin konparauta antzik ez daukala esaten dit.

Horretaz aparte, ETBko erretransmisioetan Euskitzekin komentarista ibiltzen naiz.

Arrieta
modak
San Bartolome 18
☎ 74 08 49

karkizano
San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49

GARAY

HARATEGIA
URDAITEGIA
San Franzisko, 9. Tel. 74 13 92

**BOUTIQUE
DEL PAN**
Enpanada
Baserriko ogia
B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92

"Lagun Toki" taldea izan da Gabonetako txapelketako irabazle

"Lagun Toki" izeneko kuadrila izan da aurtengo Gabonetako kuadrila arteko txapelketako garaile. Irabazlearen izena ez zen azken unera arte jakin. Izan ere, futbol sala finala penaltien bidez irabazi zuten "Lagun Toki" kuadrilakoek. Partidua galdu izan balute, hiru kuadrila geldituko ziratekeen lehen postuan berdinduta.



■ ■ Garaikurrak eskuan, lehen hiru sailkatuak Udaleko agintariek.

Txapelketan parte hartu zuten kuadrilen artean berdintasun handia egon da. Horren adibide izan da irabazlearen izena, futbol finalean penaltien bidez erabaki behar izan zela. Emozioa azken unera arte mantendu zen dudarik gabe.

Txapelketak iraun dituen bost egunetan, Kiroldegia jendez gainezka egon da. Saskibaloiak eta

futbolak esaterako, goizeko 11etan hasi eta goizaldeko 5ak arte iraun dute, eta, momentu oro, jende ugari bildu izan da partiduen gora-beherak ikustera.

Txirrindularitza, lehen aldiz jokatu da aurten, eta ikuslego alde-tik, harrera ezinhobea izan du. Lasterketaren ibilbidea begira zegoen jendez josita zegoen. Kro-sean ere, euriaz gain, jende mor-

doa bildu zen. Pala partiduak, berriz, bertan behera laga behar izan dituzte, Ikastolako frontoian ura sartu baitzen.

Gabonetako kuadrilen arteko txapelketa hirugarren aldiz egin da aurten, eta urterik urte, partaidetza handituz joan da. Gero eta arrakasta handiagoa duenaren seinale da aurten parte hartu duten 26 kuadrilen presentzia.



■ ■ Lagun Toki kuadrila. Txapelketaren irabazleak.

SAILKAPENA

■ Sailkapen orokorra:

- 1- Lagun Toki
- 2- Dinamo Kalimotxo eta Drink Team

■ Kirolez kirol:

- Krosa:** Txiringo
Txirrindularitza: Drink Team
Saskibaloia: Dinamo Kalimotxo
Futbola: Lagun Toki

■ Talderik deportiboena:

Biotes (neskak)

■ Jokalari onena:

Richard Aranzabal



Odol Emaileen elkarteak

Elgoibarko Odol Emaileen elkarteak

30 urte inguru daramatza borondatezko emaile direnen odola jasotzen eta behar dutenei eskura jartzen. Horrelako elkarte batek nola funtzionatzen duen eta atzetik lanean jardun duen jendearen berri jakiteko, hona hemen hainbat datu:

1963 urtean Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak sortzeko saiakera egin zuten zenbait elgoibartarrek. Migel Ubiriarengandik jasotako ideia ezin izan zuten gauzatu, garai hartan Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak sortzear baitzegoen. Hori ikusita elkartearen zuzpertzaleek Iruñara jo zuten baina Iruña urrutiegi zegoela eta, bertan behera geratu zen proiektua. Bi urte beranduago 1965. urtean, proiektua berreskuratu eta Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak fundatu zuten. Elgoibartarrak, Gipuzkoako Odol Emaileen mugimenduaren bultzatzaile izan zirela esan behar. Lehendabiziko komisia Jose Antonio Aldanondok, Jose Zuazubiskarrek, Eustakio Goñik eta Ramon Maiztegi osatu zuten. Presidente Jose Maria Mugerza izan zen.

Gaur egun elkarteak presidentea Ramon Maiztegi da, idazkaria Begoña Izagirre, diruzaina Eustakio Goñi eta bozeramaleak Imanol



■ ■ J.M. Zubiaurre, E. Goñi, M. Urreta, B. Izagirre, R. Maiztegi eta J. Carballo.

Conde, Juan Carballo eta Juan Manuel Zubiaurre.

Urte guzti hauetan, elkartearen helburu bakarra hau izan da: Gipuzkoan gutxienez, ez dadila inor odol faltaz hil.

Elkarteak 1000 bat bazkide ditu. Hauetatik erdiak gutxi gora behera, odol emaileak dira eta beste erdiak bazkide babesleak deitzen direnak. Azken hauek diruz laguntzen dute. Ez dago diru kopuru finkorik, bakoitzak ahal duena ematen du. Hauetatik gain, elkarteak laguntza jasotzen du Udalaren eta zenbait enpresaren eskutik.

Urtean zehar 20 bat aldiz ateratzen da odola. Gipuzkoako odol bankukoak arduratzen dira horretaz. Orokorrean elgoibartarron erantzuna oso ona dela irizten diote elkarteak arduradunek: urte-

an 360 litro odol ematen ditugu elgoibartarrok. Dena den, ez da ahaztu behar orain emaile direnek noizbait errelebua beharko dutela eta beraz, gazteek hartu beharko dutela ardura hori.

Odola eman ahal izateko, 18 urtetik gorakoa eta 65 urtetik beherakoa izan behar da. Jasotzen den odol guztia Donostiako bankuan aztertzen da eta hepatitis edo HIES-a dutenak baztertu egiten dira. Ospitaleetara garantia osoko odola bakarrik bidaltzen da.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1965

Presidentea: Ramon Maiztegi

Bazkide kopurua: 1000

Iharduera: Odol ateraldiak

Lokala:

P. M. Urruzuno 8, behea




ANCHUSTEGUI S.A.

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa



OIERKI IGONGAILUAK


Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua

(943) 11 35 15 • ABERIAK (943) 11 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

Zirkuko ekilibristak bezala

Gabonetan, ohizko ospakizun eta ikuskizunez gain, gauza bitxiak ere izan ditugu, eta horietako bat, Taupada antzerki taldeak burutzen dituen tailerren barruan antolatatu duen malabar ikastaroa izan da. Abenduaren 26tik 29ra bitartetan, gazte talde batek, zirkuko komedianteen antzera, oreka eta malabar jokuak egiten ikasten jardun du.



■ ■ Hiru bolekin aritzea zaila bada, are zailagoa ruloaren gainetik erori gabe aritu behar izatea..

Taupadaren esku-tik eta Udalak **I a g u n d u t a**, Elgoibar, Deba eta Azpeitiko gazteez osatutako 21 laguneko talde bat bola, maza, aro, diablo, monoziklo eta hankaluzeekin ekin eta ekin ibili da teknika menperatu arte Taupadaren lokalean. Malabar jokuak modan daudenaren adierazgarri nonbait. Irakasle lanetan, Diego Murciano kataluniarra izan dute. Zirkuan aritutakoa, bere asmoa, malabaren teknika irakatsi baino, "zirkua eta antzerkiaren konbinaketa" lortzea da. Horrela, "tresna horiekin espektakulua nola egin eta erakargarria izaten" irakatsi nahi die ikasleei. Tresna ezberdinen arteko konbinazioak lortzea eta ikuskizuna muntatu ahal izatea litzateke helburua.

Orokorrean, teknika aldetik, maila oso ona dagoela esan digu irakasleak. "Dena den, mailarik gabe etorri direnak, berehala ikas-

ten ari dira". Oinarrizkoena bolak dira. Lehendabizi bola batekin, gero birekin eta azkenean hiru bola, esku batetik bestera aldatzen. Tresnarik errazenak, bolaz gain, hankaluzeeak eta diabloa dira, eta zailenak, berriz, monozikloa eta mazak. Oreka gortzea oso zaila omen da. Batzuek esan digutenez, malabar jokuak stressa botatzeko metodo ona dira baina orokorrean helburua ondo pasatu eta ahalik eta gehien ikastea da.

Ikastaroa eta gero, interesgarria litzateke antolatzaileen ustez, ikasitakoa praktikan jarri ahal izateko lokal bat edukitzea. Asmoa, ikastaroari jarraipena eman eta nork bere kabuz praktikatu eta teknika hobetzen joatea litzakete, lantzean behin irakasle baten gainbegiraketa izanik.

Ikastaroak arrakasta izugarria izan du eta inguruko herrietako jende ugari apuntatu nahi izan du ikastaroan.



DEKORAZIOA

PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09



PINTURAK

- Fatxadak
- Komunitateak
- Mota guztietako lanak

San Roke 30 behe Tel. 74 36 52

8 LARUNBATA

16,20 GAZTETXEEN ALDEKO MANIFARAKO AUTOBUSA

✓ Irteera Maalan.
Antolatzailea: Elgoibarko Gazte Asanblada

19,30-22,15 ZINEA

"Una proposición indecente"

Zuzendaria: Adrian Lyne
Aktoreak: Robert Redford, Demi Moore eta Woody Harrelson.
✓ Udaletxeko Biltzar aretoa
Antolatzailea: Ongarri zine kluba

ZINEA

"Una proposición indecente"

Diana eta David Murphy pozik asko bizi dira. Beraientzako etxea eraikitze leku bat topatu ondoren dirua lortzeari ekingo diote. Diruaren zati bat baino ez dute eta bestea lortzeko Las Vegas-era joango dira jokuan irabazteko asmoz. Zoritxarrez dena galtzen dute, baina bapatean diruz jositako gizon batek proposamen lizun bat egingo dio bikoteari.

ZINEA

9 IGANDEA

09,00 JAIOTZA KENTZEKO MORKAIKORA IRTEERA

✓ Irteera Plaza handian.
Antolatzailea: Morkaiko Mendizale Elkarte

17,00 ZINEA

"Robin Hood"

Haurrentzako sarrera: 150 pezeta
✓ Udaletxeko Biltzar aretoa
Antolatzailea: Ongarri zine kluba

19,30-22,15 ZINEA

"Una proposición indecente"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoa
Antolatzailea: Ongarri zine kluba

10 ASTELEHENA

19,00 KROS MUGERZAREN AURKEZPENA

Matrikula doan
Antolatzailea: KOKOE
✓ Santa Klarako eskolaurrean.

22,15 ZINEA

"Una proposición indecente"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoa
Antolatzailea: Ongarri zine kluba

14 OSTIRALA

19,30 LAGUN TALDEAREN ASANBLADA OROKORRA

✓ Kultur Etxea.


20,00 KITARRA KONTZERTUA

Musikoak: Beinvenido Rodriguez eta Juan Carlos Martin.
✓ Udaletxeko Biltzar aretoa
Antolatzailea: Musika Fundazioa

22,15 ZINEA

Zehaztu gabe
✓ Udaletxeko Biltzar aretoa
Antolatzailea: Ongarri zine kluba

KIROLAK



Errosario 16-18 ☎ 74 32 68



CASA

ASTIGARRAGA



LORAK



BIZIKLETAK

Errosario 27 ☎ 74 43 86

Etxebizitzak

Etxeberrian etxebizitza berri bat dago salgai. 87 m² Sukaldea, 3 logela, egongela bat, 2 bainu gela, ganbara, terraza eta garjea.

Tel.: (943) 70 12 71

Pisu bat salgai. Ubitarte 11. zenbakian.

Tel. 74 12 07 (Iñaki - Mertxe)

Etxe bat saltzen dut Urasandin. 1. pisua. **Tel: 75 51 69**

Etxe bat daukat alokatzeko. Altzariak dauzka. Pedro Migel Urruzuno kalean (Olatz altzari denda ondoan)

Tel.: 74 08 09

3,30etatik - 7,30etara.

Lana

Aizu etxeokandrea!, perfumeria apainketa eta kosmetikan ari den frantziar multinazional batek emakumezkoak behar ditu. Salmenta zuzena. Diru etorri oso ona. Mustrario bikaina publizitatez lagundua. Aukera ederra zuretzat.

Deitu arratsaldeko 7etatik aurrera 51 04 53 zenbakira.

Matematika, fisika eta kimika klaseak ematen dira BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.
Javier Telf: 74 13 11

Salerosketak

Ford Fiesta 1.400 CLX bat saltzen dut. 4 urte. SS-AF.
Tel.: 74 07 11 Tomas

Eskaladarako 50 m. eta 11m.m. diametroko soka, arnesa, katu hankak (42-43), magnesio boltsa, segurtasun mosketoia eta zortzi bat saltzen ditut.
Gaueko 10,15etatik - 11etara 74 00 30 Imanol Azpiazu.

Frigorifiko bat erosiko nuke. Ate indibidualun kongeladore txiki batekin. **Tel: 74 13 38** Eguerdian deitu

YAMAHA TZR 80 bat saltzen dut. **Tel: 74 41 12 Nekane**

Anayak etxean garaje bat alokatzen da. Bi kotxerentzat. "Altilloa" du. Almazenerako aproposa. **74 34 65**

Brother trikotosa bat saltzen dut., bigarren eskukoa. Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio merkea.
Tel: 74 18 51

Bigarren eskuko Renault 12 Bi- 1988 Y salgai. Prezio egokia.
Tel.: 74 41 32 Fernando

OPEL CORSA GT 3 ate SS-AH saltzen da. **Tel.: 74 01 17**

Gasezko estufak erosiko nituzke.
Telf: 74 08 95 Maite

San Roke auzoan garaje bat daukat alokatzeko.
Telf: 74 33 78

Garaje bat saltzen da. Bi kotxerentzat espazioa eta leku onean. Modu onian.
74 23 44 eguerdiko 12ak baino lehen.

kontaktuak

Abenduaren 29an, elizako arkupeetan mendiko txamarra urdin bat desagertu zitzaidan 7ak eta 7,15 bitartean. Aurkitu duenak dei dezala **74 12 61era. Joseba**

Abenduaren 23ko arratsaldean urrezko domina galdu nuen Arrillaga eta San Bartolome kaleen artean. Inizialak: aurrean A.G.eta atzean ARH + **74 10 68 Ane**

Tango baloi bat galdu nuen Lerungo aparkalekuan. Norbaitek aurkitu badu mesedez deitu.
Tel. 74 14 78 Hodei

Karitasek eskerrak eman nahi ditu atal honen bidez lortutako berogailua eta armairuagatik.

Karitasek familia bati emateko erropak gordetzeko armairu bat behar du.
74 15 09 / 74 12 57

Untzon taberna istera doanez, bertan dagoen tresneria salgai jarriko dugu. Kamarak, Kafetera, Ontziak, kazuelak... Deitu **74 00 35 Jesusa.**

Hi, gazte!! Traban dauzkaken diska, zinta eta konpaktoak, zaharrak, berrixak, oingurak eta lengurak jasotzen ditugu. Deitu arratsaldez ZAZPIKira **74 34 74 edo bialdu 70 postakutxatilara.** Mila esker!!.

ABENDUAN

Ezkondutakoak

► Jose Manuel Rodriguez eta M. Pilar Arriola Setien (Abenduak 4)

► Luis Mari Agullo Ruano eta M. Lourdes Jauregi Mujika (Abenduak 18)

► Juan Manuel Luna Nuñez eta Ana Jesus Valdes Aranzeta (Abenduak 18)

► Amaia Irusta Uria eta Ernesto Ezenarro Iso (Abenduak 4) Valdes Aranzeta (Abenduak 18)

Hildakoak

► Domingo Arrizabalaga Gabilondo (Abenduak 8) 83 urte

► Jose Solares Lavin (Abenduak 9) 58 urte

► Juana Balzola Arriola (Abenduak 14) 75 urte

► Eduardo Garcia Gallego (Abenduak 20) 24 urte

► Pedro Garcia Garate (Abenduak 30) 72 urte

► Jose Miguel Bereziartua Etxeberria 44 urte (Abenduak 23)

Jaiotakoak

► Joshua Segura Sahagun (Abenduak 11)

► Jose Luis Aizpiri Solares (Abenduak 7)

BERISTAIN EDARI BANATZAILEA

- Coca Cola
- Keler zerbeza
- Altzolako Ura
- RAM esnea
- Codorniu
- Ardoak eta edariak

Iñaki ☎ **74 38 27**

GURBIL *Jatetxea*

- Pintxoak - Eguneroko menua
- Karta - Plater konbinatuak

Orain probatu etxean egindako PIZZAK

Isasi, 1 - Tel. 11 11 52 Eibar

PAGOAGA S.A. Iturgintza



GAS INSTALATZAILEA, IG4 baimenarekin

**Gas Naturala
eta
Propanoa**

KANPORAKO ETA ETXE BARRURAKO

- ▷ ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK
- ▷ IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN

☎ 74 02 79-74 05 12 ELGOIBAR

GUASS *dantzalekua*

Urtarrilean berrikuntzak egingo ditugu

